

1222 – Testu zuzenetik harago: egokitasunerako estrategiak

Patxi Petirena Alzuguren – Elhuyar

Ikastaro hau euskara-irakasleei zuzenduta dago, eta Euskaltzaindiaren arau gramatikalak betetzetik harago, edozein ekintza komunikatibotan hizkuntza kalitatez erabiltzeko gaitasun estrategikoa landuko da: hitz-ordena, testu-antolatzaileak, lexikoa, puntuazioa...

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburu orokorra

Testuen egokitasunaren alderdi nagusiak lantzea, modu teoriko-praktikoan (idatz-ariketak egingo eta aztertuko dira).

Helburu operatiboak

Hitz-ordenaren, puntuazioaren, diskurtso-markatzaileen eta testu-erreferentzien inguruko gaur egungo ikuspegi orokorra ezagutzea. Norberaren testuak hobetzeko baliabideak lantzea. Besteren testuak zuzentzeko eta hobetzeko irizpideak lantzea.

Edukiak

1. Hitz-ordena komunikatiboa: egungo ikuspegi bat eta testuetako adibideak.
2. Puntuazioaren gaineko ikuspegi orokorra eta gomendio zehatzak, testuetako adibideen argitan.
3. Diskurtso-markatzaileak. Erabilera estrategikoa, lagin bat eta testuetako erabileraren iruzkinak.
4. Erreferentzia anaforiko eta lexikoak: erakusleak, izenordeak, ordezipena...

Metodologia

Ikasleek aurrez idatzitako testuez baliatuz (zuzentze-ariketa bat ere egingo da), aurrez aurreko saioetan azalpen teorikoak emango dira eta adibideak iruzkinduko. Horrez gain, Moodle bidez, galdetegi bidezko ariketa batzuk egingo dira, eta foroan zenbait informazio osagarri, adibide-iruzkinak eta zalantzak landuko dira.

Ebaluazioa

Jarduerak proposatutako helburuen lorpenari buruzko iritziaren arabera baloratuko dira.

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da:

- proposatutako jarduerak egitea eta horretan gutxieneko kalifikazioa lortzea. Foroko parte-hartzea balioetsiko da.
- asistentzia % 75ekoa baino handiagoa izatea

Bibliografia

- ✓ Alberdi, X. (koord.) (2014). *Birformulazioa eta birformulatzailerak euskaraz*. Bilbo: UPV/EHU.
- ✓ Arrarats, I. (koord.) (2006). *Berriaren estilo liburua*. Andoain: Berria.
- ✓ Esnal, P; Zubimendi, J.R. (1993). *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ✓ Esnal, P. (2002). "Testu-antolatzaileak", *Hizpide* 50. Donostia: HABE.
- ✓ Esnal, P. (2002). "Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa", *Hizpide* 51. Donostia: HABE.
- ✓ Esnal, P. (2011). *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ✓ Euskaltzaindia (2018). *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE). Bilbo: Euskaltzaindia.
- ✓ Garzia, J. (2005). *Kalko okerrak* (EIMAREN estilo-liburuaren atala). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ✓ Garzia, J. (2014). *Esaldiaren antolaera. Funtzio informatiboak gako*. Bilbo: UPV/EHU.
- ✓ Garzia, J. (2014). *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak* (EIMAREN estilo-liburuaren atala). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ✓ Garzia, J. (2017). *Esaldiak josten: anaforak, lokailuak, aditz-isiltzea, sasimenderakuntza, nominalizaziozko joskera, esaldi-adjektiboak, joskeren aukera, puntuazioa elkargailu*. Bilbo: UPV/EHU.
- ✓ Gramatika Batzordea, Euskaltzaindia (2021). "31. Perpaus erlatiboak". *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ✓ Gramatika Batzordea, Euskaltzaindia (2021). "40. Moduzko perpausak". *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ✓ Gramatika Batzordea, Euskaltzaindia (2021). "41. Hitz ordena: informazio egitura". *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ✓ IVAP (2005). *IVAPeko estilo-liburua*. Gasteiz: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

- ✓ Petrirena, P. (2006). "Aurkaritzako lokailuen inguruan" eta "Aurkaritzako lokailuen inguruan (II)", *Administrazioa Euskaraz* 53 (16-17) eta 54 (16-17). Gasteiz: IVAP.
- ✓ Petrirena, P. (2011). *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* (EIMAREN estilo-liburuaren atala). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.